

ERANSKINA

Ikasleen hutsegite justifikatuak eta justifikatu bakoak.

2015eko maiatzaren 22ko OOGko batzarrean onartuta

AJA: II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK. 36. artikulua (3. paragrafoa).

Adin nagusiko ikasleen hutsegiteen justifikazioa, **ohiko lan harremanetan bezala**, ikasleak berak egiaztagiriak aurkeztuz egin beharko du. Ikasleak, eskolara bueltatzean, irakasleari eman beharko dio justifikatzeko daukan agiria. Hutsegitea luzea bada, aste bi igaro baino lehenago entregatu behar du frogagiria.

Hutsegiterik ohikoenen inguruko irizpideak argitzeko kontuan hartu behar dira hurrengo zerrendak. Alde batean justifikatu litezkeenak eta bestean justifikatu ezin direnak.

Gurasoek edo tutoreek justifikatu beharko dituzte adin txikiko ikasleen hutsegiteak. Guraso edo tutoreren batek ikasleren baten hutsegiteak etengabe justifikatzen dituela uste baldin bada, ikasketaburuak beste frogagiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du.

JUSTIFIKATZEKOAK

JUSTIFIKATU EZIN DIRENAK

- | | |
|---|--|
| 1. Laneko unean uneko gorabeherak edo bidaiak. | 1. Ikasketa bidaiak / oporrak. |
| 2. Matrikula egin ondoren lortutako Erasmus edo beste beka batzuk. | 2. Matrikula egin baino lehen lortutako Erasmus edo beste edozein beka. |
| 3. Matrikula egin ondoren sortutako lan baldintza berriak. | 3. Matrikula egin aurretik daukaten lana dela eta eskolara inoiz etorri ez diren ikasleak. |
| 4. Derrigorrez egin behar dituzten ikastaroak. Esaterako, INEMekoak edo LANBIDEkoak | 4. Eskolara ez datozenak, parte hartu ezin duten taldean matrikulatu direnez, ordutegi aldaketaren zain daudelako. |
| 5. Unibertsitateko edo laneko praktikak. | 5. JUSTIFIKATU BARIK, berandu heltzea edo lehenago joatea, hutsegite erdia izan liteke. |
| 6. Gaixotasun-baja. | 6. Hilabetean eskolara behin ere ez joatea lan kontuak direla eta. Esaterako, txandaka lan egitearren. |
| 7. Amatasun edo aitatasun-baja. | |
| 8. Azterketa egunak. | |
| 9. Mendeko senideen arreta justifikatua. | |